



DINAMIK(TT)AK'10 **sormen auzolandegia**

DINAMIK(TT)AK gazteei zuzendutako udako esperientzia da. Egitasmo honen helburua gazteek sormena ulertzea eta esperimentatzea da, baina beti ere, jarrera ekintzaileak sustatuz eta sormen hori gizartean ekiteko tresna gisa ulertuz, elkarri eraginez eta hitz eginez jarrerak aldatzeko eta gizartea bera eraldatzeko asmoz.

- **17 eta 19 urte bitarteko gazteei zuzendutako auzolandegia da eta ARTIUMen egingo da.**
- **Etengabeko jarduera 12 egunetan zehar, 2010. urteko uztailaren 5etik 16ra bitartean.**
- **10 parte-hartzaile eta 10 profesional, 12 egunez eta 24 orduz elkarrekin biziz eta elkarri eraginez proiektu zehatzak garatzeko asmoz.**
- **Artearen eta sormen aplikatuaren inguruko esperientzia da eta aisialdi hezitzailean eta ekintza hausnartzaileetan oinarritua dago.**
- **Sormena gizartea eraldatzeko tresna gisa hartzen duen benetako lan-esperientzia**
- **Ekimen hau Eusko Jaurlaritzaren Nazioarteko Auzolandegien Programan kokatzen da. eitb.com eta Donostia-San Sebastian Hautagaia Europako Kultur Hiriburua 2016 erakundearen laguntza izan du.**

<http://www.dinamikttak.com>



DINAMIK(TT)AK 2009.eko irudiak.

1.- SARRERA

DINAMIK(TT)AK'10 sormenaren inguruko interesa duten gazteei zuzendutako auzolandegia da, beti ere, sormena era zabalean ulertuz (arte ederrak, arkitektura, filosofia, zinea, komunikazioa, pedagogia, diseinua, publizitatea, moda...). Adierazpen estetikoa lantzen duten teknikez haratago joanez, parte-hartzaileak sormen ekintzailearen inguruan heziko ditugu, sormena ekintza parte hartzaile gisa ulertuz eta gizartea eraldatzeko duen ahalmena landuz.

10 parte-hartzaile, 3 begirale eta 10 artista eta kultur-aktibista izango dira 12 egunez (**2010.eko uztailaren 5etik 16ra bitartean**) eta 24 orduz ARTIUMen bizikidetzan. Ekimenaren helburua da museoaren eta hiritarren arteko harremanaren inguruan hausnarketa egitea. Nola eta zertarako hurbiltzen da museoa hiritarrengana? Nola elkar eragiten du hiritarrekin beharra sortzen den kasu erreal batean?

DINAMIK(TT)AK'10 egitasmoaren abiapuntua **ARTIUM hiriko eragile aktibo gisa** hartzea da. Museoak Vitoria-Gasteizko bizitza sustatzeko eskaintzen dituen aukerak aztertzea da helburua nagusia.

Era berean, auzolandegi hau **arte garaikidearen eta sormen-aplikatuaren munduan** sartzeko interesa duten **gazteen arteko topagune eta hausnarketarako gune izatea nahiko genuke**

DINAMIK(TT)AK'10 honetan **bertako kultura garaikidearen testuingurua ezagutzeko eta harekin elkar eragiteko jarduerak eta ekintzak** antolatuko dira.

Honetaz guztiaz gain, auzolandegiak badu bere bloga ere. Parte-hartzaile guztiek elikatzen dute bloga eta bizikidetzako 12 egunetan zehar gertatzen den guztia ezagutzeko bitartekoa izango da. <http://www.dinamiktak.com>

Esperientzia zertan datzan ulertzeko modurik onena aurreko urteko auzolandegiaren laburpen-bideoa ikustea da: <http://www.dinamiktak.com/dinamik10/aurrekoak-antiores/>

2.- HELBURUAK

Modu trinkoan aurkeztuta, hona hemen *DINAMIK(TT)AK'10* egitasmoaren helburuak:

- **Sormena lehengai gisa sustatzea, gizartean esku hartzeko eta testuinguruan eragiteko tresna gisa eskaintzen digun aukera gazteengana hurbilduz.**
- **Diziplina eta kultura desberdinen arteko elkarlana sustatzea, talde-lana eta ikus-entzunezko sormena bultzatuz.**
- **Bizikidetzaren bitartez, etorkizunean sormenaren inguruan lan egingo duten pertsonen arteko harremanak sortzea eta sendotzea.**
- **Parte-hartzaileen azterketarako eta kritikarako gaitasuna bultzatzea.**
- **Hiriko eragile aktibo gisa ARTIUMek duen paperean, parte-hartzaile dinamikoak eta proposatzaileak izatea.**
- **Hiritarren parte-hartzea eta ekintza lantzen duten bertako ekimenak ezagutzea.**



3.- JARDUERAK

DINAMIK(TT)AK'10 egitasmoan, emaitza konkretuetan baino gehiago, **prozesuetan eta bizikidetzan** jarriko dugu arreta. Jarduera-programak **lau lantegi nagusi** izango ditu (horietako hiruk hirian esku-hartze soziala landuko duen proiektu nagusia aurrera ateratzeko helburua izango dute), **bi ekintza osagarri, publikoari irekia egongo den eztabaidarako mahaia** eta **bertako testuingurua ezagutzeko eta harekin elkar eragiteko helburuarekin egindako hainbat bisita.**

- **“Artium, biografia eta sinfonia” (1. fasea):** Museoa ezagutzeko, aztertzeko, eraikitzeko eta bertako partaide izateko prozesua. Lantegia SPIRALek koordinatuko du. SPIRAL diziplina anitzeko konpainia da. Antzerkia, parte-hartzea eta ikerketa dira haien proiektu kulturalen oinarri eta teknika.
<http://www.tallerspiral.com/>
- **“Blog and Rol. Jokoaren arauak aldatuz hiritarren mikrobotereak konektatuz” (2. fasea):** Museoaren inguruan dagoen guztia ulertzea prozesu neketsua da, baina lantegiaren ezinbesteko atala izango da. Kalera aterako gara hiritarrek batera ikertuz eta hitz eginez, dauden arazoak eta erronkak identifikatu ahal izateko. PLATONIQek lagunduko digu jarduera honetan. PLATONIQ nazioarteko erakundea da. Software-garaztaileak eta kultura ekoizleak biltzen ditu eta hauen helburua da hainbat ekintza eta IKTen erabilera sozialak garatuz, hiritarren antolamendua, komunikazioa eta autoformazioa bultzatzea. <http://www.platoniq.net/> - <http://www.youcoop.org/>
- **“Goazen... Egin dezagun!” (3. fasea):** Aurreko lantegietan ateratako ondorio guztiak parte-hartzaileek planteatuko duten proiektuan txertatuko dira, hau egiteko LUCIA ANTONINI artistaren laguntza izango dute. Prozesu osoa izango da, 0tik 100era. Luciaren lanak gizarte-antolamenduan nahiz ezagutza orokorrean sortzen ditugun hierarkiak zalantzan jartzen ditu eta sormen kolektiboa bilatzen du.
- **“DINAMIK(TT)AK'TV:** Aurreko lantegi eta jarduera guztiak batera mobblogingaren, kazetaritza hiritarraren eta gertuko telebistaren inguruko esperimentu hau garatuko da eta bide batez, auzolandegiaren kronika ere izango da. **NEOKINOK** koordinatuko ditu jarduera guztiak. NEOKINOK ikus-entzunezko hizkuntzen eta komunikabideen inguruko azterketan aritzen den taldea da. Jarrai ezazu DINAMIK(TT)AK denbora errealean: <http://www.dinamiktak.com>
- **“BackBrokeBox- Eta kutxa bat izango bazina, zer topatuko nuke irekitzean?”** Komunikazio plastikoaz blai Ana Lecetaren eskutik, ARTIUMeko artista eta arte-hezitzailea da bera.
- **“Sinets ezazu ez zenukeela sinetsiko”.** Iñigo Iraultza (Iru) aktore eta performerrak ezusteko bat du guretzat: lantegi-ekintza bat, non muga-eremuak landuko ditugun mugimenduaren bidez, barruan-kanpoan, ni eta bestea, publikoa eta aktorea, parte-hartzea eta begiratzea...
- **“Nola batu pedagogia, parte-hartzea, prokomuna eta sormena?”.** Publiko orokorrari irekitako topagunea izango da eta bertan, gonbidatuekin eta DINAMIK(TT)AKeko parte-hartzaileekin batera hitz egingo dugu honako gai hauen inguruan: pedagogia kritikoa, metodologia parte hartzaileak, ezagutza partekatua, heziketa-bitartekaritza, ekintza hausnartzaileak, esku-hartze soziala.... **Uztailak 8an (ostegunean) izango da arratsaldeko 18:30ean.**
- **Vitoria-Gasteiz (ber)ezagutzen:** Hainbat ekintza egingo ditugu egunero, bertako testuingurua ezagutzeko eta hirian egiten diren kulturaren inguruko hainbat ekimenen berri izateko, **Colabora en Red, Odol-emaielen Elkarte**a, edo **Amerika Asanblada** bezalako eskutik.
- **Bizikidetzaren sendotzeko eta ingurua ezagutzeko jarduerak:** Hiriko ekimenetan parte hartuko dugu (esaterako, Jazzaldia, Rock Udalekuak...); Donostiara joango gara egun batean eta hirian egiten diren hainbat jardueren berri izango dugu (Delifunart, Arkitektura Kolektiboak, Europako Kultur Hiriburua 2016...); gaueko zine-kluba; hondartza (Garaio)...



4. NORK EGITEN DU DINAMIK(TT)AK'10?

DINAMIK(TT)AK'10 IA18 egitasmoaren jarduera-programan kokatzen da eta **Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Gizarte-ekintza Sailak** eta **ARTIUM, Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoak** antolatzen dute. Gainera, **eitb.com** eta **Donostia-San Sebastian Hautagaia Europako Kultur Hiriburua 2016** erakundeen laguntza izan du.

IA18 (www.casitengo18.com) elkarteak kultura aniztasuna sustatzen du, hiritarren parte-hartzea oinarri hartuta eta batez ere, nerabeengan arreta jarriz, **haiekin batera** eta ez haiei buruz edo haientzat lan eginez. Kulturaren eta gaur egungo sormenaren helburu nagusia **bizi garen mundu hau eta geure buruak mundu horretan duen lekua** ezagutzen laguntzea da. Hau dela eta, sormena, norberaren adierazpena eta *prouser* gisa dugun papera nerabegarotik (gure nortasuna finkatzen den garaia) sustatzea da **gizarte, politika eta kultura mailan konprometitu den jardueraren** helburu nagusia.

Hau guztia lortzeko IA18 egitasmoak **ekintza sozio-kulturalaren eta hezkuntza ez-formalaren inguruko** hainbat ekimen garatzen ditu, hitza nerabeei emanaz eta **bizi diren munduaren definizioan parte-hartze aktiboa** izan dezaten baliabideak eskainiz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezkek, etab.

Jarduera-programaren oinarrian **sormenaren eta bitartekaritzaren inguruko** estrategia pedagogikoak daude eta berebiziko garrantzia ematen diogu parte-hartzaileen arteko **elkarreraginari**, hurbilen sentitzen dituzten lengoaiari, bitartekoei eta dinamikei arreta berezia eskainiz euren imaginarioa sortzeko eta **azterketa (auto)kritikorako gaitasuna** garatzeko. Jardueren artean, **lantegiak eta IKTen eta komunikabide berrien erabilera** gailentzen dira lanerako bide eta plataforma gisa, baina beti ere, pertsonen arteko benetako harremanen (vs birtualen) garrantzia ahaztu gabe.

DINAMIK(TT)AK'10 egitasmoa aurrera ateratzeko IA18-k **AMASTÉ**ren (www.amaste.com) laguntza izan du. **AMASTÉ** ideia-bulegoa da. Bitartekaritza, harremanak eta parte-hartzea oinarri duten prozesuak garatuz, irudimena, hausnarketa eta espiritu kritikoa bultzatzeko helburua du eta gizarte berrikuntza, gazteria, kultura, ekintzaileak, alfabetizazio mediatikoa, inguruaren garapena, etab. bezalako alorretan lan egiten du.

5. INFO+

Informazio osagarria nahiz prentsa-materiala lortzeko edota bisitak eta elkarrizketak adosteko, hona hemen harremanetarako datuak:

Txelu Balboa / txelube@amaste.com / 656 737 445
Idoia Azkorra / idoia@amaste.com / 647 450 171

IA18
Aretxaga, 10
48003 Bilbao
(+34) 946 053 468
info@casitengo18.com
www.casitengo18.com